eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

Cofinanciado por la Unión Europea

**ERABAKIA, 2024ko urtarrilaren 19koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordearena, atzerriko enpresetan praktikak egiteko mugikortasun-beken Erasmus+ Praktikak programa arautu eta deitzekoa (2023/2024 ikasturtea, ezohiko deialdia).**

Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordetzaren deialdi honek, Erasmus+ programaren baitan, nazioarteko praktiketarako mugikortasunak garatzeko laguntzak esleitzeko prozedura eta baldintzak ezartzen ditu, Europako Batzordeak ezarritako jarraibideei jarraituz, Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) bidez.

Kontuan hartuta Europako funtsetatik datorren kreditua badagoela (hain zuzen ere, 2023-1-ES01-KA131-HED-000127281 proiektuari lotutako dirulaguntza kontratuarena), eta ditudan eskumenak baliatuz,

**EBATZI DUT:**

**Lehenengo:** Erasmus+ programaren baitan, nazioarteko praktikak egiteko mugikortasun-deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea.

**Bigarren:** Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; eta, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, 2 hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera. Hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organo berari, hilabeteko epean, baldin eta egintza espresua bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera).

**RESOLUCIÓN de 19 de enero de 2024, del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se regula y convoca el programa Erasmus+ Praktikak, becas de movilidad para la realización de prácticas en empresas en el extranjero (Edición 2023/2024, convocatoria extraordinaria)**

La presente convocatoria del Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad establece el procedimiento de adjudicación de ayudas y las condiciones establecidas para el desarrollo de movilidades de prácticas internacionales dentro del programa Erasmus+, siguiendo las directrices establecidas por la Comisión Europea a través del Servicio Español para la Internacionalización de la Educación (SEPIE).

Habida cuenta de la existencia de crédito proveniente de los fondos europeos del contrato de subvención vinculados al proyecto 2023-1-ES01-KA131-HED-000127281, y en el ejercicio de las competencias que ostento,

**RESUELVO:**

**Primero:** Aprobar y publicar las bases de la convocatoria de movilidad para prácticas internacionales en el programa Erasmus+.

**Segundo:** Contra esta resolución, que pone fin a la vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo correspondientes en el plazo de 2 meses contados desde el día siguiente a su publicación, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, sin perjuicio del recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que los hubiera dictado en el plazo de un mes, si el acto fuera expreso, de acuerdo con los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — eman ta zabal zazu

Cofinanciado por la Unión Europea

OINARRIAK

I.- *Xedapen orokorrak*

**1.- Mugikortasunaren xedea, araudi aplikagarria eta finantzaketa**

1.1.- Erabaki honen xedea da Erasmus+ Praktikak programaren 2023-2024 ikasturterako oinarriak eta deialdia arautzea. Hauxe da programaren helburua: pertsonen mugikortasuna sustatzea, Europar Batasuneko Erasmus+ programan parte hartzen duten herrialdeetako enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteko, gaitasun profesionala hobetzeko, enplegagarritasuna errazteko eta, azken batean, prestakuntza osatzeko, bestelako kultura-ingurune batean enpresa-praktikak eginez. Deialdia gauzatzeko, beharrezkoa izango da kreditu nahikoa eta egokia egotea.

1.2.-Programa honetako mugikortasun-bekak Europar Batasunaren funtsen bidez finantzatutako dirulaguntzak dira, eta ez dira itzuli behar. Publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioen arabera esleituko zaizkie eskatzaileei, **ondoz ondoko lehia-deialdi irekiko** prozeduraren bidez; hartara, aurkeztutako hurrenkeran aztertu eta izapidetuko dira espedienteak, eta berehala erabakiko dira, behar bezala formulatu eta osatuta jasotako ordenari jarraikiz.

**2.- Deitutako bekak, edukia, iraupena eta aintzatespen akademikoa**

2.1.- Deialdi hau irekita egongo da erabilgarri dauden funtsak agortu arte.

2.2.- Ikasleak matrikulatuta dauden ikasketekin lotura zuzena izango dute praktikek. Praktikak egingo diren atzerriko enpresak edo erakundeak erakusle bat izendatuko du kasu bakoitzean, praktikaren prestakuntza-akordioan jasota dauden helburuak betetzen direla bermatzeko. Bestalde, ikasleak harremanetan egon beharko du, etengabe, UPV/EHUko bere ikastegiak izendatuko duen tutorearekin.

BASES

I.- *Disposiciones generales*

**1.- Objeto, normativa aplicable y financiación de la movilidad**

1.1.- La presente Resolución tiene como objeto la regulación de las bases y la convocatoria de la edición 2023/2024 del programa Erasmus+ Praktikak, el cual pretende fomentar la movilidad de personas para realizar prácticas en empresas y entidades radicadas en los países participantes en el programa Erasmus+ de la Unión Europea con el fin de mejorar sus competencias profesionales, facilitar su empleabilidad y, en definitiva, completar su formación por medio de prácticas empresariales en un entorno cultural diferente. La ejecución de la convocatoria está supeditada a la existencia de crédito suficiente y adecuado.

1.2.- Las becas de movilidad de este programa tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables financiadas íntegramente de los fondos de la Unión Europea, se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad, y se adjudicarán entre las personas solicitantes mediante un procedimiento de **convocatoria abierta de concurrencia sucesiva**, de modo que los expedientes se examinarán y tramitarán conforme al orden de presentación de las solicitudes y se resolverán de forma inmediata en la medida y en el orden en queden correctamente formuladas y completadas.

**2.- Becas convocadas, contenido, duración de las mismas y reconocimiento académico.**

2.1.- Esta convocataría estará abierta hasta agotar los fondos disponibles.

2.2.- Las prácticas a realizar por el alumnado deberán estar directamente relacionadas con los estudios en los que se encuentra matriculado. La empresa o entidad donde se realizan las prácticas nombrará en cada caso un/a instructor/a que velará por el cumplimiento de los objetivos contenidos en el acuerdo de formación de la práctica. Por otra parte, cada estudiante deberá permanecer en contacto con el tutor o tutora nombrado en su centro de la UPV/EHU.

2.3.- Praktikak 2024ko urtarrilaren 1 eta 2024ko abuztuaren 31 bitartean egin ahal izango dira. **Edonola ere, gutxieneko egonaldia 2 hilabetekoa izango da, harrerako enpresa edo erakundearen eskaintzaren arabera. Finantzatutako gutxieneko iraupena 2 hilabetekoa izango da, eta finantzatutako gehieneko iraupena 6 hilabetekoa.**

2.3.- Las prácticas se podrán realizar en los periodos comprendidos entre el 1 de enero y el 31 de agosto de 2024. **En todo caso, la estancia mínima será de 2 meses y estará determinada por la oferta concreta de cada organización o empresa de acogida. La duración mínima financiada será de 2 meses y la duración máxima financiada 6 meses.**

Praktikak egingo diren enpresa edo erakundea ados badago, ikaslearen atzerriko egonaldia luzatzeko aukera egongo da, baldin eta luzapena praktikaldiari jarraiki egiten bada (hots, egonaldia eteten ez bada) eta 2024ko abuztuaren 31 baino lehen amaitzen bada. Egonaldia luzatzeak, baina, ez du inola ere finantzaketa handituko.

Se podrá ampliar el período de estancia si la empresa o la entidad donde se realizan las prácticas están de acuerdo, siempre y cuando la estancia ampliada se realice inmediatamente después, no suponga una interrupción de la misma y no se extienda más allá del 31 de agosto de 2024. La ampliación de la estancia no supondrá en ningún caso un aumento de la financiación.

2.4.- UPV/EHUk erabateko aintzatespena eman ahal izango dio kanpoko enpresan edo erakundean egin den praktikaldiari. Bi kasutan soilik ukatu ahal izango da aintzatespena: ikaslea harrerako enpresak edo unibertsitateak ezarri duen mailara iristen ez denean edo aintzarespenerako adostu diren baldintzak betetzen ez direnean.

2.4.- La UPV/EHU podrá conceder el pleno reconocimiento del período de prácticas realizadas en la empresa o entidad. El reconocimiento únicamente podrá ser denegado si un o una estudiante no alcanza el nivel requerido por la empresa o universidad, o bien se incumplen las condiciones acordadas relativas al reconocimiento.

Aintzatespena Tituluaren Gehigarri Europarrean jasoko da —2015-02-07ko BOEa— eta ECTS kreditutan edo baliokidean egingo da beti.

El reconocimiento se hará constar en el Suplemento Europeo al Título (BOE 07/02/2015) y se realizará siempre en créditos ECTS o equivalente.

## *II.- <u>Beken onuradunak hautatzea</u>*

## *II. - <u>Selección de las personas beneficiarias de las becas.</u>*

### 3.- Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak

### 3.- Requisitos de las personas aspirantes.

3.1.- Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera egiteko unean:

3.1.- Las personas aspirantes habrán de reunir, en el momento de realizar la solicitud, los requisitos que se enumeran a continuación:

- **Baldintza orokorrei** dagokienez, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarrak izatea, edo EBn sartzeko hautagai den herrialde batekoak (Kroazia, Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia, Islandia eta Turkia), edota Europako Esparru Ekonomikoko herrialde batekoak (Liechtenstein eta Norvegia). Horrez gainera, Espainiak ofizialki errefuxiatutzat, apatridatzat edo egoiliar iraunkortzat dituen pertsonek ere hartu ahal izango

- Con **carácter general**, habrán de ser ciudadanos o ciudadanas de un Estado Miembro de la Unión Europea, de alguno de los países candidatos a la adhesión (Croacia, Antigua República Yugoslava de Macedonia, Islandia y Turquía) o de un país integrante del Espacio Económico Europeo (Liechtenstein y Noruega). Podrán participar igualmente en la presente convocatoria las personas oficialmente reconocidas por España como personas refugiadas, apátridas o residentes

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea — eman ta zabal zazu

Cofinanciado por la Unión Europea

dute parte deialdi honetan. Azkenik, programan parte hartzen duten herrialdeetakoak ez diren pertsonek ere hartu ahal izango dute parte deialdian, baldin eta hirugarren herrialde bateko herritarrak badira eta praktikaldiak iraun bitartean Espainian bizitzeko bizileku-baimena badute.

- Mugikortasuna hasi aurretik 2023-2024 ikasturtean UPV/EHUn matrikulatuta egotea, titulu ofizial bat lortzeko ikasketetan (gradutik doktoretzara); eta, graduko ikasketetan, enpresetako praktikak egiteko behar diren kredituak (120) gaindituta edukitzea, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiak ezartzen duenaren arabera.

- Praktikak egingo dituzten enpresaren lan-hizkuntza behar adina ezagutzea.

Enpresak hizkuntzaren ezagutza-maila jakin bat frogatzea eskatzen badu (Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua-HEEEBren arabera), eskatutako hizkuntzaren ziurtagiria **aurkeztu beharko** du ikasleak. Nolanahi ere, enpresaren ardura izango da ikasleak laneko hizkuntzan duen maila egiaztatzea.

• EAEn erroldatutako pertsonak: izena emanda izatea Lanbide/ Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegua eskatzeko (LANBIDEn alta UPV/EHUko Enplegu Guneetan egin daiteke).

- Dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako desgaitzen duen lege-debekurik ez izatea, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, 2005eko otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenak ezartzen duenaren arabera.

permanentes. También podrán participar aquéllas personas que, no siendo nacionales de uno de los países participantes en el Programa, lo sean de terceros países y estén en posesión de un permiso de residencia válido para residir en España durante el periodo de realización de la movilidad.

- Antes del comienzo de la movilidad, habrán de estar matriculados/as en la UPV/EHU en el curso 2023/2024 en estudios conducentes a la obtención de un Título Oficial, desde Grado hasta Doctorado inclusive, y haber superado en el caso de los estudios de Grado a los créditos necesarios (120 créditos) para la realización de prácticas en empresa de acuerdo a la Normativa Reguladora de las Prácticas Académicas Externas del Alumnado de la UPV/EHU.

- Tener un conocimiento suficiente de la lengua de trabajo en la que se realizarán las prácticas en la empresa.

En el caso de que la empresa solicite la acreditación del nivel especifico de conocimiento de la lengua (según el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, MCERL), el/la alumno/a **deberá presentar** el certificado del idioma requerido; en todo caso será empresa la responsable de verificar el nivel de conocimiento de la lengua de trabajo del/ de la estudiante.

• Las personas empadronadas en la CAV: estar inscrita como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (en los Centros de Empleo de la UPV/EHU se puede realizar el alta en LANBIDE).

- No hallarse sancionada o sancionado penal ni administrativamente con la pérdida de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa o incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con la inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Deialdi honetatik kanpo gelditzeko dira:*

- ✓ *Praktikak egiteko unean UPV/EHUn beste programa batzuen bitartez ikasketak edo mugikortasun-egonaldiak egiten ari diren ikasleak (Erasmus+ ikasketetarako mugikortasun-programa, SICUE, Amerika Latina eta Beste Norakoak programetako trukeko ikasleak eta abar).*
- ✓ *Aurreko deialdiren batean praktiketarako Erasmus+ laguntza baten titularrak izanik, jaso duten bekari deialdi honen irekiera-dataren aurretik berariaz uko egin ez dioten ikasleak, eta UPV/EHUk kudeatutako edozein deialditan laguntza ukatu zaienak.*
- ✓ *Erasmus+ programaren barnean (edozein modalitatetan) 12 hilabeteko egonaldia egin dutenak ikasketa-maila berean (gradua, masterra edo doktoregoa). Salbuespenak izango dira doktorego-ikasketetara sarbidea ematen duten graduak (Arkitektura, Farmazia, Medikuntza eta Odontologia): horien iraupen osoa 24 hilabetekoa izango da.*
- ✓ *Praktikak egiterakoan enpresa, erakunde edo entitateren batekin lanaldi osoko kontratu-harremana dutenak, lanerako, zerbitzuak emateko edo parekorako.*
- ✓ *Aurreko deialdiren batean Erasmus+ Praktikak programako bekaren bat lortu ondoren uko egin diotenak behar bezala justifikatu gabe, eta, ondorioz, beste hautagai batzuei mugikortasunean parte hartzeko aukera kendu dietenak.*

*Quedan excluidas/os de la presente convocatoria:*

- ✓ *Quienes en el momento de realización de la práctica se encuentren realizando estudios o estancias de movilidad en la UPV/EHU a través de otros programas (Programa Erasmus+ de movilidad para estudios, SICUE, estudiantes de intercambio de los programas América Latina y Otros Destinos, etc.)*
- ✓ *Quien, siendo titular de una ayuda Erasmus+ para Prácticas en convocatorias anteriores, no hubiese presentado renuncia expresa a la beca concedida antes de la fecha de apertura de la presente convocatoria; y aquellas/os a quienes se les hubiese revocado la ayuda en cualquiera de las convocatorias gestionadas por el UPV/EHU.*
- ✓ *Quienes hubiesen completado 12 meses de estancia al amparo del programa Erasmus+, en sus distintas modalidades, para un mismo nivel de estudios (Grado, Máster o Doctorado), a excepción de aquellos Grados que den acceso a estudios de Doctorado (Arquitectura, Farmacia, Medicina y Odontología), cuya duración total será de 24 meses.*
- ✓ *Quienes, en el momento de realización de la práctica, tienen una relación contractual a tiempo completo de tipo laboral, de prestación de servicios o asimilable con empresa, institución o entidad alguna.*
- ✓ *Quienes, tras obtener una beca en convocatorias anteriores del programa Erasmus+ Praktikak, hubieran renunciado a la misma sin causa debidamente justificada después de una fecha que no haya permitido la utilización de la plaza de movilidad por otros candidatos u otras candidatas.*

## 4.- Eskatzeko prozedura: epeak, aurkezpena

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko maiatzaren 31n bukatuko da. Hala ere, eskaerak aurkezteko epea lehenago bukatu daiteke programarako bideratutako aurrekontua amaitzen bada. Aurrekontu erabilgarria ahituz gero, Interneteko helbide honetan jakinaraziko da:

## 4.- Procedimiento de solicitud: Plazos, presentación de solicitudes.

4.1.- El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día siguiente de la fecha de publicación de la presente convocatoria y finalizará el 31 de mayo de 2024 o con anterioridad a esta fecha en el caso de producirse el agotamiento del presupuesto destinado a este efecto, hecho, que en caso de producirse será publicitado en la siguiente dirección de internet:

https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/erasmuspraktikak

Esleitutako aurrekontu-hornidura amaitu delako erantzun ezin zaien eskaerak (aurkeztuta eta izapidetze-bidean daudenak) atzera botako dira, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordearen erabaki bidez.

4.2.- Programan parte hartu nahi duten eta 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituzten interesdunek izena eman beharko dute, eta eskaera formularioan (hemen dago: https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/erasmuspraktikak) eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Eskaeraren inprimakia eta gainerako agiriak Interneteko helbide honetan eskuratu ahal izango dira: https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/erasmuspraktikak

4.3.- Eskatzaileak dokumentazio hau erantsiko du (PDF formatuan), eskabidearen inprimakiarekin batera:

a) Eskabidearen inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta.

b) NANaren, AIZren, pasaportearen edo bizileku-baimenaren kopia.

c) Ikaskuntza Akordioa (*Learning Agreement*), bere datuekin eta sinadurarekin; harrerako erakundearen datuekin, sinadurarekin eta zigiluarekin, eta UPV/EHUren sinadurarekin eta zigiluarekin.

d) Hizkuntza-ziurtagiria, baldin eta maila jakin bat egiaztatzeko betebeharra ezartzen badu enpresak.

e) Erasmus+ Studies programako amaierako ziurtagiria (Erasmus+ Studies programa egiten ari bada).

f) Europako Osasun Txartela.

g) Hirugarren fitxa (Banku-kontua).

https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/erasmuspraktikak

Las solicitudes que estuvieran ya presentadas y en tramitación, que no pudieran ser atendidas por agotamiento de la dotación presupuestaria asignada, serán denegadas, por tal motivo, mediante resolución del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad.

4.2.- Las personas interesadas en participar en el Programa que cumplan los requisitos planteados en la Base 3, deberán inscribirse y aportar la documentación que se solicita en el formulario de solicitud disponible en la dirección web: https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/erasmuspraktikak

El impreso de solicitud y resto de documentos se puede obtener en la dirección la dirección de internet: https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/erasmuspraktikak

4.3.- La persona solicitante deberá presentar, junto con el impreso de solicitud, la siguiente documentación en formato PDF:

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y con la firma de la persona solicitante.

b) Copia del DNI, NIE, Pasaporte o Permiso de Residencia.

c) Acuerdo de Aprendizaje (Learning Agreement) cumplimentado con los datos y la firma de la persona solicitante y los datos, firma y sello de la entidad de acogida y firma y sello de la UPV/EHU.

d) Certificado de Idioma en el caso de que la empresa establezca como requisito obligatorio la acreditación de un determinado nivel.

e) Certificado Final de Erasmus+ Studies (solamente en solicitantes que esten realizando el programa Erasmus+ Studies).

f) Tarjeta Sanitaria Europea.

g) Ficha de terceros (Cuenta bancaria).

h) IBILI-EHU asegurua edo Mediku-aseguru pribatua. (hobe praktikak egingo dituela ziur dakienean).

i) EAEn erroldatutako pertsonak: LANBIDEn alta egoera egiaztatzen duen agiria (EABA/DARDE). LANBIDEn alta UPV/EHUko Enplegu Guneetan egin daiteke.

j) Graduko ikasketak egiten diren zentroko nazioarteko mugikortasuneko arduradunaren baimena, Erasmus+ Praktikak deialdi honen arabera nazioarteko praktikak egiteko. Masterreko ikasketen kasuan, arduradunaren baimena behar da.

h) Seguro IBILI-EHU o Seguro Médico privado (preferiblemente enviar cuando se este seguro de la realización de las prácticas).

i) Las personas empadronadas en la CAV: acreditación de estar inscrita como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (DARDE). En los Centros de Empleo de la UPV/EHU se puede realizar el alta en LANBIDE.

j) Autorización del responsable de movilidad internacional del centro donde se cursan los estudios de grado para realizar la movilidad de prácticas internacionales de acuerdo a la presente convocatoria Erasmus+ Praktikak. En el caso de estudios de Master, se requiere la autorización de su responsable.

**Parte hartzeko baldintza: enpresako lan-hizkuntza ezagutzea.** Oro har, ezinbestekoa izango da enpresan erabiltzen den lan-hizkuntza jakitea, nazioarteko mugikortasunaz gozatzeko.

Enpresa bakoitzean eskatutako mailari eta haren balizko egiaztapenari buruzko informazioak Ikaskuntza Akordioan (*Learning Agreement*) agertu behar du.

Enpresak hizkuntzaren ezagutza-maila jakin bat frogatzea eskatzen badu, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) edo parekoa erabiliz egingo du, enpresak hizkuntza-ziurtagiri zehatz bat (TOEFL, IELTS...) eskatu ezean. Kasu horretan, ez da inolako korrespondentziarik aplikatuko, eta ikasleak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du, organismo eskudunak jaulkitakoa.

4.4.- Eskabidea bete ondoren, agiriak atxiki eta telematikoki bidali beharko da dena. Eskatzaileak eskabidearen frogagiri bat jasoko du posta elektronikoz berak eskabidean emandako helbidean. Gordekin hori inprimatu, sinatu eta paperean aurkeztu beharko du erregistroan.

**Conocimiento de la lengua de trabajo en la empresa como requisito de participación.** Con carácter general el conocimiento de la lengua de trabajo en la empresa es indispensable para el disfrute de una movilidad internacional.

La información referente al nivel requerido en cada empresa y su posible acreditación deben aparecer en el Acuerdo de Aprendizaje (Learning Agreement).

En el caso de que la empresa solicite la acreditación de un determinado nivel, dicha acreditación se realizará utilizando el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (MCERL) o su equivalencia, salvo en el caso de empresas que soliciten una certificación específica de idiomas como por ej. TOEFL, IELTS... En este caso no podrá aplicarse ninguna correspondencia, debiendo el o la estudiante presentar la certificación correspondiente expedida por el organismo acreditado para ello.

4.4.- Tras cumplimentar la solicitud, deberá adjuntarse la documentación y enviarla telemáticamente. La persona solicitante recibirá un resguardo de solicitud en la dirección de correo electrónico que figure en la solicitud para efectos de notificaciones. Una vez recibido el citado mensaje con el resguardo de solicitud, deberá imprimirla, firmarla y presentarla a través de registro.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluaren arabera, eskabidea, ahal dela, UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko da (https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico), **Ikasleen eta UPV/EHUko Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzara zuzenduta – Arabako Enplegugunea.**

De conformidad con lo establecido en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la solicitud deberá presentarse preferentemente a través del registro electrónico de la UPV/EHU ubicado en la dirección URL https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico, dirigido al **Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU – Centro de Empleo Araba.**

Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Para ello se deberá utilizar alguno de los siguientes sistemas de identificación electrónica: a) Certificado Digital de Usuario de Izenpe, b) Tarjeta Universitaria de la UPV/EHU (Izenpe), c) DNI electrónico o d) Certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES.

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskabidea: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan; b) erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren edo sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez; c) posta bulegoetan; eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Asimismo, podrá presentarse: a) en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público b) presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU o de cualquier otra entidad perteneciente al sector público, a través de persona funcionaria pública habilitada c) en las oficinas de Correos, y d) en las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan (https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia) aurrez aurre aurkezten diren eskabideak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesdunak funtzionarioaren aurrean bere burua identifikatu eta horretarako adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, zeinaren bidez onartu ziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskabideak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Las solicitudes y documentos presentados de manera presencial en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

Bestalde, web orri honetan eskura daiteke eskabide orria: https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/erasmusprakti

Asimismo, la hoja de solicitud estará disponible en la siguiente página WEB: https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/erasmusprakti

kak . Eskabideaz gain, deialdi honen 4.3 puntuan zerrendatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

kak, además se deberá aportar toda la documentación recogida en el punto 4.3. de esta convocatoria.

Telematikoki bidali arren eskaria ez bada erregistratzen gorago adierazitako prozeduraren bidez **AURKEZTU GABEKOTZAT** joko da, eta baztertu egingo da programatik.

Aquellas solicitudes enviadas por vía telemática que no hayan sido registradas mediante el procedimiento señalado en los párrafos anteriores se considerarán como **NO PRESENTADAS** y quedarán excluidas del Programa.

Programari buruzko informazioa UPV/EHUn eskura daiteke 945014436, 946017973, 946013679 y 943015946 telefono zenbakietara deituta, edo e-maila honetara jota: enpleguguneak@ehu.eus eta Interneteko helbide honetan: https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/erasmuspraktikak

Se informará sobre el programa, en la UPV/EHU a través del teléfono en los números 945014436, 946017973, 946013679 y 943015946, en el email: enpleguguneak@ehu.eus y en la dirección de Internet: https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/erasmuspraktikak https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/erasmuspraktikak

## 5.- Esleipen-prozesua

5.1.- Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte programako eskatzaileek. Akatsen bat badago, 10 egun baliodun izango dituzte beharrezko dokumentazioa aurkeztuz horiek konpontzeko. Hala egin ezean, eskaera ukatu egingo zaie, **behin-behineko baztertze-erabakiaren** bidez, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, 68. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

## 5. - Proceso de adjudicación

5.1.- Los y las solicitantes del programa presentarán los documentos exigidos en las Bases de la convocatoria, con indicación, en su caso, para que en el plazo de 10 días hábiles subsanen las deficiencias presentando la documentación requerida, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistida de su petición mediante **resolución de exclusión provisional**, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**Sarrera-erregistroko ordenaren arabera hautatuko dira programan parte hartzeko eta onartzeko eskaerak.**

**Las solicitudes de participación y admisión al programa serán seleccionadas por estricto orden de registro de entrada.**

**Hauek izango dira baztertzeko arrazoiak: a) deialdi honetan ezarritako epetik kanpo aurkeztea eskaerak eta b) erabaki honetako baldintzak ez betetzea.**

**Serán causas de exclusión: a) la presentación de solicitudes fuera del plazo establecido a tal efecto en la presente convocatoria; y b) el no cumplimiento de los requisitos señalados en la presente Resolución.**

Erabaki horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Praktiken, Prestakuntza Dualaren eta Enplegagarritasunaren alorreko zuzendariaren aurrean (UPV/EHUren Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeak eskuordetutako sinadura bidez), interesatuari jakinarazpena bidali ondorengo hilabeteko epean. Beste aukera bat izango da zuzenean

Contra dicha resolución cabrá recurso potestativo de reposición ante el Director de Prácticas, Formación Dual y Empleabilidad (por delegación de firma del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU), en el plazo de un mes desde la notificación al/a la interesado/a, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de dicho

administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztea, dagokion jurisdikzioaren epaitegian, 2 hilabeteko epean.

Dokumentazioa egoki aurkeztu ostean, 10 egun balioduneko epean OLS (*Online Linguistic Support*) testa egiteko eta dirulaguntza-hitzarmena sinatzeko eskatuko zaie esleipendunei. Aurretik, baina, Praktiken, Prestakuntza Dualaren eta Enplegagarritasunaren arloko zuzendariak (UPV/EHUren Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeak eskuordetutako sinadura bidez) sinatutako laguntzaren **esleipen-jakinarazpena** bidaliko zaio. **Dokumentu hori sinatzea eta OLS testa egitea *sine qua non* baldintzak dira, gero laguntza jasotzeko**.

Esleipena jakinarazitakoan, esleipendunari mezu elektroniko bat igorriko zaio OLS aplikaziotik, mugikortasun-epealdia baino lehen eta amaieran hizkuntza-gaitasunen bilakaeraren ebaluazioa egiteko (linean), baldin eta helburuko lan-hizkuntza nagusia OLS aplikazioan (http://erasmusplusols.eu/es/) ezarritakoetako bat bada edo erakunde bidaltzailearekin hala adosten bada; salbuespena: hizkuntza horretan natiboa izatea esleipenduna.

